

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### Luberri, okupazioak eta abeltzaintzako kanonen errolda jendaurrean jartzea eta zergen bilketarako aldia

Honakoak ordaindu behar dituztenen 2026ko erroldak egin dira:

Abeltzaintzako kanona.

Luberri eta okupazioak.

Aipatutako erroldak jendaurrean jarriko dira, interesdunek egokiak iruditutako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluaekin ildotik.

Era berean, jende orori jakinarazten zaio araututako epea ordaindu ahal izango direla.

I. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epealdia: ekainaren 1etik uztailaren 31ra.

Premiamendu aldia: abuztuaren 1etik aurrera Premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetan ordainketa helbideratuta zutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, bankuko helbideratze-kontua aldatu ez badute. Udala ordainketa izapidetzeaz arduratuko da.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek kreditu-txartelaren bidez ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, "Nire ordainketa" ([www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus)) ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango dute, edo, bestela, Kutxabank eta Euskadiko Kutxa erakunde laguntzaileen bulegoetan ordainketa-agiria aurkeztuz.

III. Errekurtsoa.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Alkatetzari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2026ko ekainaren 12an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*